

2020.06.12ko Herriko Kontseilua

Hor zirenak: Jean-Michel Coscarat, Marie-Agnès Haristoy, Antton Curutcharry, Daniel Ithurburua, Betti Bidart, Annie Juantorena, Bernadette Mousquès, Jean-Paul Bibes, Isabelle Arangoits, Betti Olçomendy, Hélène Deguiraud, Frantxoa Mocho, Sébastien Clauzel, Maddalen Dupuy, Sandrine Mercapide.

Hastapena: 20:40

Gai zerrenda:

- 1. Ageriko abandonatze prozedura:** Herriak ageriko abandonatze prozedura bat abiatuko du Baigorriko Behereko karrikako Çaldarriague «Cuburu» etxearendako. Etxe hori ez da gehiago artatua eta balizko lanjera sortzen du (auzokoak jin dira Herriko Etxearen abisatzerat). Jabeak abisatuko dira prozedura abiatzen dela. Prozedura bururaino joaiten baldin bada, jabeak desjabetuak izanen dira, herriaren probetxuko. Herriko kontseilua, aho batez, Baigorriko Behereko karrikako Çaldarriague «Cuburu» etxearen ageriko abandonatze prozedura bat abiatzearen alde agertu da.
- 2. Pelloenea etxearen berritzeko ikerketaren ko-finantzatzea:** saltzaile batzuk Pelloenea etxearen parte baten jabea den Iparragerreko Jean-Michel Coscarat-i hurbildu zazko. Agentziek salgai den parte 160-170 000€-tan estimatu dute. Herria berdin interesatua litzateke herriko plazan den ondasun horren erosteko. Herriak Tokiko Lurren Establezimendu Publikoari dei egin dako ondasunaren bisitatzeko. Tokiko Lurren Establezimenduak erosiko luke eta berrituko. Bainan, lehenago, ikerketa bat egin behar da, Goicoechea arkitekto bulegoarekin, berritze proposamen baten egiteko, Tokiko Lurren Establezimendu Publikoaren kontseiluen arabera. Ikerketa hori ko-finantzatua izanen da, Herriak %50 eta Tokiko Lurren Establezimendu Publikoak %50 (goreneko muga, guti gorabehera, 3 000€-tan duen ikerketa). Herriak Pelloenearen berritze ikerketaren ko-finantzamenduan parte har dezan onartua da, aho batez.
- 3. Germietan eta Jaran arroken ezartzeko ikerketa bulego bati eskatzea:** abenduko aro txarraren ondorioz, Germietako eta Jarako bide bazterretako desmasien parte batzuetan arroak ezarri behar dira. Obren gastuak aldatzen ahal dira. Herriak ikerketa bulego bat engaiatzen baldin badu (10 000 eta 20 000€-ren arteko kostua), Euskal Elkargoa obren eta ikerketaren gastuetako %50eko heinera jiten ahalko da. Herriko kontseilua, aho batez, Germietan eta Jaran arroken ezartzeko ikerketa bulego bati eskatzearen alde agertu da.
- 4. Hautetsien ordainsarien finkatzea:** Diru-kopuru orokor bat (hilabetean 5 087,33€ gordin) partekatu behar da auzapezaren, 4 axuanten eta hautetsi delegatuaren artean. Hola

banatuko litzateke: %48 auzapezarendako, %16,8 axuantendako, %15,6 hautetsi delegatuarendako.

Herriko Kontseiluak onartu du proposatu ordainsarien taula: 9 boz alde eta 6 abstentzio.

- 5. Interpretazio Zentroaren eszenografiarendako hautatagaitza-eskaintzen onartzea:** Hautagaien azterketa-txostenak hiru ikerketetarik bat agerian emaiten du, erran nahi baita Bixie bulegoarena, prezio onean, eta proiektua ontsa ezagutzen duena. Herriak bulego hori atxiki behar luke.

Herriko Kontseilua, aho batez, Baxenabarreko Historiaren Interpretazio Zentroaren kontzepzio, instalazio eta eszenografia merkatuko hautatagaitza eskaintzen onartzearen alde agertu da.

- 6. Helbideen ezartzea:** Ortografia akatsak egin dira bideen izenak biltzean edo idaztean. Prozedurak konplikatu iduri du, baina posible da akats batzuen zuzentzea, nahiz eta lehen delibramendua abenduan egin. Herriko Kontseiluari proposatua zako berriz delibratzea, egin diren akatsen zuzentzeko.

Herriko kontseilua, aho batez, bideen izenetan egin ortografia-akatsen zuzentzearen alde agertu da.

- 7. Sasoiko enpleguen sortzea:** bi sasoilari gazte hartu dira ekaineko. Orain, beste sasoilari batzuk hartu behar dira uztaileko eta agorrileko. Peio Mousquès, Bixente Izoco uztaileko, Timeo Binet, Xan Durgueil agorrileko. Kanpinari buruz (protokolo proposamen bat presentatu zako prefeturari), sasoilariak proposatu dira: Argi Dupuy, Eve Elizagoyen, Emma Sallaberry, Alaia Arangoits eta Mohammed Camara (uztailaren 15aren eta agorrilaren 15aren artean) kanpinaren garbiketarendako.

Herriko kontseilua, aho batez, 8 sasoilari enplegu sortzearen alde agertu da.